

## ZESUMA

- JUAN MARI BELTRAN, HERRI MUSIKAZ eta TRADIZIOAZ



- "Herri musika **kaletarra** da gaur egun, gu geu ere kaletar bihurtu garelako. Nahiz eta ezin den ahaztu gure oinarria nondik datorren. Herri musika ez da nahastu behar baserri musikarekin". (Oarsoaldeko Hitza, 2007/01/26)
- "Gero eta jende gehiago dago musika mota, estilo, joera, hizkera batera mugatzen dena. Milaka forma ditu herri musikak. Interesgarria iruditzen zait forma, estilo, hizkera, tinbrika, joera horiek guztiak ez ixtea, ez koloreetan, ez eritmoetan, ez formazio musikaletan... Gaur egun, gero eta joera handiagoa dago formazio berarekin hamaikatxo disko ateratzeko, kolore berdinarekin... Musikak momentu askotan bete behar gaitu, eta, horretarako, herri musikaren **aniztasunera** jo behar dugu". (Oarsoaldeko Hitza, 2007/01/26)
- "Gaur egungo trikitilari gazteak-eta berritzaileak dira, egia da. Tradizioaren iturritik edan dute, baina horiek baino **berritzaileagoa**, beharbada, **Elgeta** izan zen. Tradizio zaharrekoa dela diote, baina erabat berritzailea izan zen".

## KALEJIRAN

- Trikitia eta elektronika uztartzen maisu den **Gose taldea** eta **Raul Lasa Ugartondo** Katalunia aldean ibili dira urtarrilean. Urtarrilaren 19an Tarragonako Riudoms herrian jo zuten, eta 20an, berriz, Bartzelonan.



- Euskarazko azken filmean ere parte hartu dute **Gose taldekoek**, "Eutsi" abestiaren bideoklipari esker. Gosereren abesti berri hau izen bereko filman ageri da, eta ez da talde honen agerraldi bakarra. Izan ere, Gatillazo taldearen "Comunicado empresarial para el bienestar social" abestiaren bertsioa ere berek egin dute filmarako.

## GALBAHEA

- **Asier Gozategik (trikitilaria) azken diskoaren harian aipatutakoak:**
  - "Hasi ginenean ez dut uste hainbesteko zaletasuna zegoenik. Plazaratu genuen lehen diskoaren arrakasta harrigarria izan zen, eta ordura arte trikitia sekula entzun ez zen txokoetaraino iritsi zen. Adibidez, *40 principales* irrati katean entzuteraino edota giro euskaldunekoak ez ziren tabernetan jendeak dantzatzeraino. Trikitiak nortasun handia du, eta estilo tradizioaletik haratago Kepa Junkerak eta Joseba Tapiak beste zentzu bat eman diote instrumentuari. Betiere, aurrekoa baztertu gabe, baina pieza berriak sartuz. Agian, hasieran euskal entzuleak ez zuen ulertzen aldaketa hori, eta musikariok entzuleek bezala ikasten joan behar izan dugu. (Argia, 2007/02/11, 2075.alea)
  - "Ez dugu gaiak bilatzen ibili beharrik izan, gaiak mahai gainean baitzeuden. Guk disko hau, bizi dugun gizartean erreferente izatea nahi dugu, nolabait hemendik hamar urtetara norbaitek diskoa entzungo balu, jakitea zer gertatu zen hamar urte lehenago. Nik musikaren bidez aldarrikatzeko beharra sentitzen dut eta horixe egiten dut". (Argia, 2007/02/11, 2075.alea)
  - "Halere, nik nahiago dut ehun mila disko pirata saldu, bost mila original baino. Horrek esan nahiko baitu gure musika hedatzen ari dela. Gainera, guk etekina zuzeneko musikatik ateratzen dugu". (Argia, 2007/02/11, 2075.alea)

Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen Boletina

# ALTZA PORRU!

2007ko martxoa / 24.zenbakia

EHTE Allemendi 1, 20800 ZARAUTZ · Tel.: 943 83 28 28  
www.trikitixa.net / www.trikimailua.com



Euskal Herriko  
Trikitixa Elkartea  
L.G. : SS-418/01

## AZPEITIKO TRIKITIXA JAIALDIA

Sanjosetako Trikiti Jaialdia martxoaren 18an izango da, Azpeitian, arratsaldeko sei eta erdietatik aurrera. **Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan** hainbat trikitilari bilduko dira, trikitixazale oren egardia asetzeko asmoz. Hona hemen, zerrenda polita: **Iker Goenaga eta Beñat Barandiaran, Aitor eta Iñigo Epelde, Imuntzo eta Beloki, Laja eta Manu Iztueta, Lurdes eta Aitor Alkorta, Saioa Lizarralde eta Garikoitz Mendizabal, Jauregi, Ansorregi eta Larrañaga, eta, azkenik, Epelde, Montte eta Iturbide.** 12 euroren truke, saio ederraz gozatu ahal izango du bertara hurbiltzen denak.

Euskal Herriko Trikitixa Elkartea eta Azpeitiko Udala dira jaialdi honen antolatzaileak, eta aurren, bereziki, **soinu txikia eta beste instrumentu batzuk uztartu** nahi dira. Hala, oholta gainera igoko den bikote, hirukote edo laukote bakoitzaren eskutik, soinu txikia beste instrumentu baten laguntzarekin entzun ahal izango dugu.

Iker Goenaga eta Beñat Barandiaranen kasuan, lehenengoak **soinu txikia eta** bigarrenak **gitarra** astinduko ditu. Nola Aitor eta Iñigo Epeldek, hala Imuntzo eta Belokik **soinu txikia eta panderoa**, biko ezaguna, dantzatuko dituzte. Laja eta Manu Iztueta dagokionez, **soinu txikia eta handia** jarriko dituzte lanean. Ondorengo laukoteak, berriz, Lurdes

eta Aitor Akortak, Saioa Lizarralde eta Garikoitz Mendizabalek **soinu txikiari, panderoari, albokari eta txistuari** egingo diote leku. Azken bi instrumentuak Garikoitz Mendizabalek joko ditu. Segidan, Jauregi eta Ansorregi **soinu txikiarekin** ari diren bitartean, Larrañagak **panderoa dantzatuko du**, eta, azkenik, Epeldek **soinu txikia**, Monttek **dultzaina** eta Iturbidek **pandero-doinuak** ekarriko dituzte oholta gainera.

Beraz, Azpeitiko urteroko jaialdian izango da trikitixaz gain, beste hainbat instrumentu entzuteko aukera ere. Hainbeste artistaren jiran, jaialdi arrakastatsua ziurtatuta dago, dudarik ez.

## SAN JOSETAKO TRIKITI Jaialdia 2007



## TRIKITIXA.NET BERRITUA

EHTeren webgunea ere berritzen ari dira, garai berrietara egokitzeko, nola ez. Badira lau urte lehen aldiz martxan jarri zenetik, eta diseinu aldetik eta erabilera aldetik aldaketa batzuk egiteak kalte baino mesede gehiago egingo dio. Webgune berrituaren helbidea bera da: [www.trikitixa.net](http://www.trikitixa.net).

### Atalak eta egitura

Menura joz gero, hainbat aukera ditugu, **hainbat atal** alegia:

- Hasiera
- Elkarteak
- Zer da trikitixa
- Trikitixa-eskolak
- Diskoak
- Argitalpenak
- Altxaporrer buletina
- Denda
- Kontzertuen agenda
- Elkartearen agenda
- Albisteak
- Webmapa
- Kontakua

Atal bakoitzak azpiatalak ditu. Esaterako, elkarte atalean, elkartearen helburu, historia, organigrama eta bazkideen berri izan daiteke. Esan genezake informazio gehiago modu bilduagoan eta hein berean bisualagoan jasotzen dituela

trikitixaren atari berritu honek. Bidean, aukera gehiago ere ematen ditu. Esate baterako, webgunearen bidez, Elkarteak argitaraturiko produktuak erosteko aukera izango du erabiltzaileak. Gainerakoan, informazio oso modu txukunean egituratuta dago, horretarako, mapak eta egutegiak bistaratuz. Egutegiko egunen batean klikatu, eta egun horretan zein ekitaldi dagoen jakiteko aukera izango dugu, besteren artean. Esan bezala, trikitixa ere teknologiarren gurrupilari lotuta doa, eta hala behar.



## EHTeren BATZAR NAGUSIA

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak urtero antolatzen duen batzarra egiteko garaia ere iritsi da. Udaberriaren atarian, joan den urtean zehar garatutako hainbat egitasmoren eta aurten garatzeko dauden beste hainbat gairen gainean elkarren artean aritzeko aukera aproposa ematen du hitzordu honek. Oro har, trikitixaz, eta Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen ibilguneaz gogoeta egiteko egun berezia da honakoa, eta edonork har dezake parte; hartarako gogoia izatea nahikoa.

**Martxoaren 3an, larunbata**, izango da **batzar nagusia**, **11:30ean**. Batzarra bera **Aiako Kultur Etxean** izango da, baina alde zurretik, **11:00etan**, **Aiako plazan** biltzeko asmoa dago.

Jorratuko diren gaiak, oro har, honako hauek dira:

- **2006ko egitasmoen balantzea**: gai honen harian, EHTEK 2006an garatutako egitasmoei helduko zaie.
- **2007ko egitasmoak**: aurtengo urteari begira antolatutako egitasmoak jendaurrean aurkeztuko dira. Hain zuzen ere, bertara hurbiltzen denak aurtengo asmoen berri izango du, eta, nola ez, iritzia eman ahal izango du.
- **Zuzendaritza**: Elkarteko zuzendaritzaz ere jardungo da batzarrean.

Batzar nagusiaren ondoren bazkaria izango da **Aiako Kanua jatetxean**. Gogoan izan, hala ere, bazkaritan geratu



nahi duenak izena eman behar duela alde zurretik, **657794217** edo **943 832828** telefonoetara deituta edo **trikitixa@trikitixa.net** helbidera idatzita. Bazkaritarako txartelak 20 euro balio du. Gonbidapena egingo dago, nola hausnarketarako, hala lagunarteko bazkaritarako. Izan ere, bi alderdiak jorratzeko beta izango da martxoko lehen larunbatean.

## ETORRIKO DIRA BERRIAK Jose Manuel Eiguren Garate (1933-2007)

Urtarrila honetan joan zaigu Jose Manuel Eiguren Garate trikitilari. Gizon umoretsua, Gorostietaren zuen bere erromeri leku ohikoena. Garate baserrian bertan jaio eta Zumarragara ezkondu zen osabarekin ikasi zuen soinu jotzen eta zahartzaroan ere soinua gaztetan bezain arin astintzen zuen.

Pandero jole bezala ere ezaguna zen gainera. Izarraitzen egiten ziren erromeriatan aritutakoa zen. Soinuaren afizioaz gain ba zuen beste gustuko lanbide bat ere: sagardogilea zen. Aurtengorako ere sagardo mordoska bat prest zuen, botilarik eskuratu zutenak irekitzeko penaz omen daude.

ETORRIKO DIRA  
BERRIAK

### • PEDRO SODUPE ESNAOLA GELATXO (1928-2007)



Pedro Sodupe Gelatxo Elgoibarko Agarre baserrian jaio zen, 1928ko otsailaren 22an. Beraz, 78 urterekin esan digu agur, 79rako bidean. Soinu-jotzaile sonatua zinez, hamar urterako panderoa jotzen zuen, aitaren ondoan. Anaia Lorentzorekin ere ibili zen. Oro har, trikitixaren munduan

hamaika ibili egindakoa da, eta, horrexegatik, hain ezagun.

• Hamabi urte zituela, Intxusabal "Elgeta"rekin Madariagan panderoa jo zuen. Bere kasa ikasi zuen instrumentu hau jotzen. Garai berean musika eta tronpetak ikasketak hasi zituen, soinu-jotzailea zen anaia zaharrari laguntzeko asmoz.

- Hamasei urterekin, tronpetari putz egiten aspertu eta botoizko soinua ikasten hasi zen anaia Lorentzorekin.
- Hemeretzi urterekin, pianozko soinuarekin hasi zen, Inazio Bereziartua organistaren lezioak hobeto jarraitzeko.

Batik bat **pianozko soinua dela medio** egin zen ezagun Gelatxo. Esan liteke Pedrok ezagutu ez zuen herri, auzune, plaza eta txokorik ez dagoela Gipuzkoa eta Bizkaian. Dena dela, bere hasierako abiapuntua (1945-1960 aldean) herri inguruko auzuneak izanik, haiek bereziki kuttunak zituen: San Lorentzo (bere bailara), San Migel, San Pedro, Kurutzeta, Iruzubieta, Endoia, Mutrikuko Antsomendi... la 40 urtetan segidan jo ondoren, Amezketa eta Aiako Santiago Erreka eta Lastur ere gogoko zituen.

**Santa eskean** ere ibiltzen zen. Puntako soinu-jotzailea izanik, lehen mailako bertsolariak izan ohi zituen eskeko lagun: Uztapide, Basarri...



Santa Ageda eskean, 1960ko hamarkadan.

Gelatxo, hasieran, gehienbat bakarrik ibili bazen ere, gerora **hiruko taldea** ere osatzen zuten; **soinu handia, saxofoia eta jazzbana** (bateria) aldean hartuta.

Gelatxorena izan zen **jazzbana talderik garrantzitsuenetakoa**. Ezin aipatu gabe utzi Pedrori lagundu zioten musikari alai eta onak: Arturo Zuloaga "Txokolo", Enrike Eguren, Jose Antonio Osoro "Katxo", Pedro Mari Sodupe, Francisco Clemente Boreas, Manuel Arruabarrena, Roberto eta Luxiano Garate, Santi Mendoza, Jose Perez Cortes, Pedro Zapateroa, Antonio Viñaras, Ricardo Gorriti eta Jose Makazaga "Ziolar".



Roberto Garate, Enrike Eguren eta Pedro Sodupe, Donostian, 1950eko hamarkadan.



Nahiz eta Pedrok soinu handia jo, trikitixa barrubarruan izan zuen; aitarengandik lehenik, eta dantzaria izan eta dantza-lehiaketetan puntan ibilia zelako gero. Pedro Sodupek Gipuzkoa aldeko trikitixaren bilakaera garrantzitsua berezia izan du: aitaren erreperorioa transmititzeaz gain, **bandetatik eta txistulariengandik** jasotako

erreperorio zabala berak bihurtu zuen soinurako apropos. Soinu txikia jotzen zutenek musika-ikasketarik ez zuten garaian, Pedro ezinbesteko zubi bihurtu zen pieza hauek ezagutarazteko. Trikitilari ospetsuek bere-bereak diren sorkuntza-lanak ere baliatu dituzte, Laja eta Martinek esaterako.

Azken unera arte musika jotzen jarraitu zuen Gelatxok. Fandango eta arin-arinez gain, tango, bolero eta pasodobleak jotzen aditu egin zen, taldean (Eguren eta Ziolarrekin), edo bakarka. Igandero Elgoibarko jubilatuetan egin izan zituzten dantzaldi ospetsuetan parte hartzen zuen.

Bizi zela bost omenaldi adina egin zizkieten: Lasturren, Amezketan, Santiago Errekan, San Lorentzo bailaran eta Elgoibarren. Goian bego.

Hona hemen, **Pako Aristik** idatzitako **GELATXO, SOINUAREN BIDAIA LUZEA** liburutik ateratako pasarte bat:

*"GELATXO esatea suaren ondoan historia zaharrak berritzen hastea da. GELATXO esatea garai bateko erromerien hotsa entzutea da. GELATXO esatea existitzen ez den mundu bat berpiztea da. Halere, GELATXO esatea geure musikaren parte zenbateraino den geuk ere ez dakigun gizon bat aipatzea da. GELATXO esanda gizon bat ikusten dugu, besoak zabalduta. Eta besoen artean soinu handi bat dauka, tekladuna. Beti. Ikusi ditudan haren ehundaka argazkietan soinua dauka beti paparrean. Txatxangorriak papar gorria dauka. Aizkolariak papar zabala. Gelatxok soinu bat dauka paparrean."*